

## HIZKUNTZA POLITIKA

GRUPO URGATZI taldeak, gizarte zerbitzu eta baliabideen sustapen eta kudeaketan diharduen eragile gisa, hizkuntza politika ezarri du erakundearen, proiektu eta zerbitzu guztietan euskara sustatu eta erabiltze aldera.

Gure zerbitzuen kalitatea handitzeko eta beratu Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz zein gaztelaniaz) eskaini ahal izateko helburuz, hizkuntza normalizaziorako eremu edo politika sortu dugu, beratu garatzen duten irizpideak barne. Dokumentu hauen bitartez, honako puntuak zehaztuko ditugu:

- Gai honen inguruko helburuak
- Beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak
- Beharrezko prozedurak

Gai honen inguruan ditugun helburuak inguruari eta kanpo- zein barne-bezeroekiko dugun gizarte erantzukizun korporatiboaren baitan ere kokatzen dira.

Ohartzen gara bidea luzea izango dela eta, tarteka, zailtasun handiagoak izango ditugula aurrera egiteko; baina, beste ezeren gaineratik, argi daukagu garrantzitsuena ez dela berehalakotasuna, lanean konstante jardutea baizik. Hartara, euskararen normalizazioan aurrera egin nahi badugu, urrats bakoitzak, txikia izan arren, irmoa izan behar du, eta bide horretan funtsezkoa da erakundeko eragile guztien parte-hartzea.

Gure euskara planean honako helburuak lortzea dugu xede:

- Bezeroei zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukera eskaintzea
- Gure jardunean ohiko hizkuntza euskara izatea
- Arreta euskaraz jaso nahi duten pertsonen hizkuntza-eskubideak errespetatzea
- Gizarte erantzukizuna, sozietateak hizkuntza-aniztasunaren errespetuan egindako aurrerapenekin bat

Lan honetan, zuzendaritza nagusiaren konpromisoa ere badaukagu, berariaz adierazten baitu konpromiso irmoa duela gure politikan jasotako helburuak lortzeko beharrezko baldintzak betetzeko eta euskararen erabilera sustatzeko.